

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremanetan aldi berean harreman mota ezberdinak sortu daitezke eta gure enpresan horixe gertatzen da. Baina, gure enpresak ahalik eta zerbitzu hobereana eskaini nahi du, eta horretarako, harreman pertsonala beharrezkoa dela uste dugunez, bezero bakoitzarekin modu batera edo bestera harreman mota hori izango dugu.

Laguntza pertsonala eskainiko dugu, bezeroekin aurrez aurre egoteko aukera eskainiko dugulako, bezeroek enpresako ordezkari batekin komunikatzea ahalbidetuz, bai erosketa bera egiteko unean edo ondoren, izan ere, web orrian gurekin harremanetan jarri ahal izateko telefono zenbakia eta korreo elektronikoa jarriko dugu. Gainera, makinak erosleari emateko garaian ere eroslearekin harreman zuzena izango dugu.

Aurrekoaz gain, autozerbitzua ere eskainiko diogu bezeroari, enpresak ez duelako zertan harreman zuzenik eduki erosteko garaian, bezeroek web gunearen bitartez egin dezaketelako erosketa, salmenta puntu fisiko batetara joan gabe, eta beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko ditugu bezeroaren eskura erosketa prozesua bakarrik egin dezan, kasu honetan, web orrian bertan.

Azkenik, baterako sorkuntza ere eskaintzen diogu bezeroei, balorea sortzeko aukera ematen diogulako bezeroari enpresaren batera elkarlanean arituz. Horrelako harremana izango genuke, bezeroak pertsonalizatutako makinak nahi dituztenean, baina baita ere, web orrian makinei buruzko iruzkinak idaztea luzatzen diegulako.